

Martutene



Plastikoari buruzko ikastaroak

Amaia Etxeberria (fnoa.:943210737)

martuteneko B.H. institutua plastikoaren injekzioari buruzko ikastaroa ematen ari da. Plastikoaren injekzioa produktu hau lantzeko dagoen modu hedatua da, eta teknika hau irakasten ari zaizkie hamabi ikasleri. Udalak finantziatu du ikastaroa eta langabetuei zuzenduta dago bereziki.

300 bat orduko ikastaroa da eta arlo teorikoa jorratzeaz gain, injekziozko makinak erabiltzen ikastea da helburu nagusia.

Orain arte, hezkuntza okupazionalan, bitxigintza eta soldadurari buruzko ikastaroak eman dituzte institutu honetan. Plastikoa lantzearena, berriz, Gipuzkoan lehen aldiz ematen ari den ikastaroa da.


Ziklo berria irailetik aurrera

Martuteneko institutuak irailetik aurrera ikasketa hauek erdi mailako heziketa zikloan eskainiko ditu. Izan

ere, Euskal Herrian Markinan besterik ez da ikasketa mota hau eskaintzen.

Gabino Zubeldia institutuko zuzendariak, Donostialdean plastikoarekin diharduen enpresa asko dagoela esan digu. *"Enpresek gaiarekiko interesa handia dute eta horregatik jarri dugu martxan"*. Enpresek kualifikatutako pertsonak behar dituztela diosku Zubeldiak, baita plastiko alorrean ere. *"Enpresek ikasleak praktikan hartu nahi dituzte eta ondoren lan kontratua izateko aukera asko izan ditzakete"*.

Zikloan behar den materialari dagokionez, hiru sailetan daude bereiztuta. Alde batetik, plastikoa injektatzeko makinak behar dira; bestetik plastiko horri forma emateko moldeak egiteko makinak daude; eta, azkenik, burnizko molde horiek diseinatzeko ordenagailu eta informatika programa bereziak jarri dira. Martuteneko institutuak badu dagoeneko ekipamendu hori guztia.



León Mártir
Anakako Kutzaren sukurtsaleko langilea (Irun)

Ni atzegizalea naiz

"Jende asko nahastu egiten da kontu korrante, libreta eta horrelako dirukontuekin, eta adimen urritasuna dutenak oraindik gehiago"

"Nik ederki dakit horren berri. Izan ere, ni neu arduratzen naiz hemen Irunen bizi eta lan egiten duten horrelako batzuen soldata administratzeaz. Jakina, beraiek hala onartuta eta Atzegiren laguntzarekin. Inoiz ez dut ezagutu dirukontuan horiek baino eskuzabalagoa denik. Ni behintzat saiatzen naiz gastu batzuk nola egin eta irabazitako dirua nola erabili behar duten erakusten. Denok pixka bat lagunduko bagenie, hobeto biziko lirateke"

OPERA

Eta zu, ez al zara
atzegizalea?

